

## 62. EUSKAL SOZIOMETROA:FAMILIA (2016ko urria) Prensa oharra

### SARRERA

62. Euskal Soziometro honen gai nagusia euskal herritarrek familiari buruz dituzten iritziak eta jarrerak izan dira, eta gai horren inguruan dituzten bizipen eta motibazioak. Landa-lana 2016ko irailaren 1etik 8ra bitartean egin zen.

### EGOERAREN BALORAZIOA

#### Egoera ekonomikoaren pertzepzioa nabarmen hobetu da

2008tik lehenengo aldiz, gaur egun gehiago dira EAEko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela uste dutenak (%52) txarra edo oso txarra dela uste dutenak baino (%45). Espainiako egoera ekonomikoari buruzko iritziak askoz okerragoa izaten jarraitzen du: %85ek txarra edo oso txarra dela diote, ona edo oso ona dela uste dutenen %10en aurrean.

EAEko egoera politikoaren pertzepzioak ere hobetzen jarraitzen du. Izan ere, gehixeago dira egoera ona edo oso ona dela uste dutenak (%47), txarra edo oso txarra ikusten dutenak baino (%43); nabarmenezkoa da egoera hori beste behin bakarrik gertatu dela, 2006an, ETAren su-etenaren garaian. Espainiako egoera politikoaren pertzepzioak oso negatiboa izaten jarraitzen du, txarra edo oso txarra dela uste dute %88k eta ona edo oso ona dela soilik %5ek.

EAEko arazo nagusiei dagokienez, herritarrek lan-merkatuarekin lotutakoak aipatzen jarraitzen dute gainerakoak baino askoz gehiago (%75ek hiru arazo nagusien artean aipatu ditu), nahiz eta beherako joerari eusten dioten. Hurrena gehien aipatutako arazoak ekonomikoak dira (%18), eta ondoren politika, politikariak eta gatazka politikoa (%15), etxebizitza eta etxe-gabeteak (%10) eta zerbitzu publikoen funtzionamendua edota hedadura eta laguntzak (%7).

### FAMILIA

#### Seme-alabak izateko asmoa errekuperatzen doa

Herritarren %20ren iritziz emakumeek seme-alabak izan behar dituzte errealizatzeko eta %76ren ustez ez da hala. Ehuneko horiek ez dira asko aldatzen gizonezkoiei dagokienez, herritarren %18k uste dute seme-alabak izan behar dituztela errealizatzeko eta %78k ez dela beharrezkoa. Seme-alabak izatea errealizatzeko beharrezkoa dela uste dutenen ehunekoak pixka bat hazi da azken urteotako beherakada handiaren ostean.

Erabateko askatasunez aukeratu ahal izango balitz eduki nahiko lirakekeen seme-alaben batez besteko kopurua 2,4koa da. Herritarren erdiek (%51k) nahiko lituzketen baino seme-alaba gutxiago izan dituzte, batez ere gazteen artean (%81ek, 18 eta 29 urte bitartekoen artean), baina baita 30 eta 45 urte bitartekoen artean (%61ek), 46 eta 64 urte bitartekoen artean (%37k) eta 65 urte edo gehiagokoen artean ere (%20k). Horretarako arrazoi garrantzitsuenak dira oraindik ez dituztela izan, baina izatea espero dutela (%41) eta arrazoi ekonomikoak (%22), eta ondoren osasun arrazoiak, bikoterik ez izatea eta lanarekin bateratzeko zailtasunak.

Etorkizunean seme-alabarik izango duten edo orain dituztenak baino gehiago izango dituzten galdetuta, herritarren %20k diote baietz, ziur izango dituztela, %12k balitekeela seme-alabaren bat izatea, %10 ez daudela ziur eta %55ek diote ziur ez dutela seme-alabarik (edo gehiagorik) izango. Ehuneko hauek 2001ean jasotako antzekoak dira, 2012an eta 2014an aldaketa handiak izan eta gero; urte horietan seme-alabarik (edo gehiagorik) ez zutela izango esaten zutenak orain baino askoz gehiago ziren (%77 eta %65, hurrenez hurren), batez ere gazteen artean.

#### Emakume eta gizonen arteko desberdintasun nabarmenak lana eta familia-bizitza bateratzean

Lana eta familia-bizitza bateratzeari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko aldeak oso esanguratsuak dira. Izan ere, herritarren %70en ustez amatasunak asko edo nahikoa oztopatzen du emakumezkoen karrera profesionala, eta %13k bakarrik uste dute aitatasunak asko edo nahikoa oztopatzen duela gizonezkoena.

Lan egiten duten amen %56k diote seme-alabak izatearen ondorioz beren lan promoziorako aukerak murriztu egin zirela; gizonezkoen artean %24k bakarrik diote hori bera.

Seme-alabak eta bikotekidea dituztenen artean, %74k diote oso edo nahikoa pozik daudela bikotekideen artean umeen zainketa banatzeko duten edo izan zuten moduarekin, baina aldeak daude gizon eta emakumeen artean: gizonen artean %82 pozik daude eta emakumeen artean %67.



### Gogobetetze soziala lana eta familia bateratzeko edukitako aukerekin

Seme-alabak dituzten langileen %57k diote oso edo nahikoa pozik daudela lana eta familia-bizitza uztartzeko dituzten (edo izan dituzten) aukerekin; %40, aldiz, ez daude oso pozik edo batere pozik.

Dena dela, herritarren %83ren iritziz instituzioek gehiago egin beharko lukete lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzeko, eta %10en ustez nahikoa egiten dute.

### Bilobak eta pertsona heldu dependenteak zaintzeko dedikazio handia

Bilobak dituztenen %20k egunero zaintzen dituzte eta %23k astean behin baino gehiagotan (biztanleria osoaren %4 eta %5, hurrenez hurren). Egunero zaintzen dituztenek batez beste egunean 5,4 ordu ematen dituzte zeregin horretan.

Biloben zainketarekiko sentimendua oso positiboa da, batez beste 2,0koa da 0tik 10erako eskalan, zeinetan 0ak adierazten baitu zainketa hori ez dela inolaz ere zama, eta 10ak eramateko zaila den zama dela.

Herritarren %12k pertsona heldu dependenteren bat zaintzen dute; horietatik %56k egunero eta %27k astean behin baino gehiagotan (biztanleria osoaren %7 eta %3, hurrenez hurren). Egunero zaintzen dutenek batez beste egunean 12,2 ordu ematen dituzte zeregin horretan. Zainketa lan horrekiko sentimendua biloben zainketarekikoa baino apur bat okerragoa da, 3,4ko batez bestekoarekin 0tik 10erako eskala berean.

### JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

#### Euskal bizitza politikoan erabateko aldaketa beharraren pertzepzioa gutxitu egin da; ez, aldiz, Espainiakoan

EAEko herritarren %33ren ustez erabateko aldaketa behar da euskal bizitza politikoan, %46k uste dute aldaketa behar dela, baina ez erabatekoa, eta %13k ez dute aldaketa beharrik ikusten. Erabateko aldaketaren aldeko iritzia 13 puntu gutxitu da aurreko neurketekiko, 2015ean %46koa zen. EAEko herritarrak askoz kritikagoak dira Espainiako bizitza politikoari buruz, %75ek uste baitute erabateko aldaketa behar dela.

Alderdi politikoekiko begikotasuna apur bat areagotu da aurreko neurketekin alderatuz, salbu eta Ciudadanosen kasuan, beheranzko joerari eusten baitio, eta PPrenean, berdin mantentzen da eta. EAJK hobekien baloratutako alderdia izaten jarraitzen du, 10en gaineko 4,8 punturekin.

Iñigo Urkullu Lehendakaria da 5 puntu baino gehiago lortu duen buruzagi politiko bakarra, eta 10en gainean 5,1 punturekin itxi du urtea. Atzetik dator Pili Zabala 4,2rekin; bai Arnaldo Otegi bai Idoia Mendiak 3,7 puntu lortu dituzte; Nicolás de Miguelek 2,2 eta azkenik Alfonso Alonsok 1,9.

Euskal Herriaren independentziaren aurkako jarrera gutxitu egin da, eta %31n kokatzen da, bildumako ohiko balioetara itzuliz, 2016ko hasieran izandako hazkuntzaren ondoren. Independentziaren aldeko jarrera %22an kokatu da berriro, %30ek egoeraren arabera ados ala kontra egongo lirakeela dioten bitartean. Erantzunik eman ez dutenen ehunekoak gora egin du, %17raino iritsiz, orain arte neurtutako mailarik altuena.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.576 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 1,9$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2016ko irailaren 1a eta 8a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak)

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 26an